

ATZO EMAN ZEN IDENTIFIKAZIO OFIZIALA

Gaur goizean iritsiko dira Ekain Ruiz gaztearen errautsak

Arratsaldeko zazpietan egingo zaio omenaldia. Udalak urjentziazko batzar berezia egin eta hilkapera udaletxean bertan jartzea erabaki du.



Ekain Ruiz gazteak gaur omenaldia jaso eta Santa Barbaran hartuko du betiko atsedena.

Atzo arratsaldean, epailearen identifikazio ofiziala iritsi zela albistea zabaldu bezain laster, sekulako mogimendua sortu zen herrian. Familiak, zinegotzi eta lagunak ondoan zituela, Bilbora jo zuten semearen gorpua jasotzera. Udalak urjentziazko batzar berezia konbokatuko zuen eta beste hainbat jende biharko omenaldia prestatzen hasi zen. Le-

herketa gertatu eta hamairu egunera iritsiko dira Ekain Ruizen errautsak bere jaioterriara.

ORERETAN ERRAUSTU
Atzo gauean zen iristekoa Oreretako errauskailura, familiak eskatu bezala. Han errautsu eta errautsak gaur goizean, atzo artean zehaztu gabeko orduan datoz Hernanira.

UDAL BATZAR BEREZIAREN ERABAKIAK

- q Ekain Ruiz herriko Seme Kuttun izendatuko dute.
- q Ekain Ruizen familia eta lagunei Doluminak eta elkartasuna adierazi dio.
- q Hilkapera udaletxean jarriko da eta heriotzak sortutako gas-tuak bere gain hartuko ditu udalak.
- q Udalak bat egiten du antolatutako omenaldi, mobilizazio eta greba deialdiarekin.
- q Euskal Herriaren hitza eta erabakiaren aldeko ekimenak indartzeko eta Euskal Demokrazia eraikitzeko pauso tinkoak emateko deia egiten du.
- q Egungo marko juridiko-politiko gainditu eta marko demokratiko eta nazioanalerako transizioari heltzea eskatzen du abertzaleen arteko itunaren bitartez.

EKAIN RUIZ IBARGUREN

- n Orain dela 23 jaioa.
- n Urumea eta Elizatxo ikastolan ikasia.
- n Psikologia karrera hasi zuen, Donostian.
- n Duela hiru urte alde egin zuen herritik.
- n Abuztuaren 7an Boluetan hil zen, bera eta beste hiru lagun zihozten kotxea lehertuta.
- n Leherketa izan eta gutxira ETAK berak eman zuen, zenbait egunkarrietan, Ekain Ruizen izena.

12:00 ZINKOENEAN HARRERA

Aurretik, udaletxeko batzar iriak egingo da eguna antolatzeko eta 10:00etan Atsegindigitik kotxe karabana aterako da Oreretara bidean. Hilkapera udaletxera eramane eta bertan egongo da astelehen goiza arte. Ekain Ruizen Errautsak Santa Barbaran botako zabalduko dituzte.

GREBA OROKORRA


Hernanin egun osoan greba orokora konbokatuko du Ezker Abertzaleak eta udalaren atxekimendua jaso du. Kioskoak itxita egongo direla jakin dugu eta HernanikoKronikan ez du ohiko banaketa izango. □



PELOTA

Oiaga eta Esnalek Oionen probatuko dute elkar

Esnal-Zubiaga eta Oiaga-Alonso arituko dira; Oionen gaur eguerdian.



Iosu Oiaga dejada botatzen. "Ezetz Esnali holakorik sartu!"

HERRIKO bi pelotari profesionalak Arabako errioxan neurtuko dituzte elkarren abileziak. Aurrekoan Oiagaren aldekoa atera zen. Nola bat hala bestea ere, barra barra ari dira partikuak jokatzen, eta ondo gainera! Inānik partidu asko irabazi ditu, eta Iosuk ez du 22ra bat bera ere galdu.

**IÑAKI ESNAL
ORDEZKO OIONEN**
Ināki Esnalen agendan partidu hau ez baizik, atzo Donostiako Irikiaren barruan Trinitate plazan jokatu beharrekoa zegoen. Azken orduko aldatketak medio, Donostian ez zuen partidurik izan eta Oionen jokatu beharko du. □

IRUNGO BANDERA

Santiagotarrak nagusi eta Hernani 11garren

Bidasoako uretan Irundarrek baino minutu bat gehiago behar izan zuten traineru berriak.

DENBORAK

Santiagotarrak.....
Santurtzi.....
San Pedro.....
Hernani.....



LARRE-GAIN
Tolara-Sagardotegia

URTE OSOAN BOTILETAN SALGAI

Tel. 943 55 58 46

Irabel Santa Cruz Zerain

LARRE-GAIN BASERRIA . ERENOTZU - HERNANI

Kaikuko txirrindulariak Ibarren dira gaur San Bartolome Sarian

Ergobiko Sari Nagusian podiumik ez, baina, karrera ona egin zuten atzo.



Kaiku taldeko txirrindulariak Zinkoenean Ergobira jo aurretik. Ezkerretik eskubira: Ibai Iturritxa, Axier Manjon, Albert Gonzalez, Aitor Bellosillo, Alain Urkola eta Jon Armendariz entrenatzailea.

KAIKU taldeko txirrindulari batzuk ez dute oporrik. Pelotoia bapo jeitsi da: martxoan 200 txirrindulari inguru zituen eta, orain, 60-70 ditu.

IBARRAN BARRENA
Gustoko lekuan izaten da aldaparik, txirrindularien kasuan: goizeko 9'30 hasiko da 80 kilometroko karrera.

AITOR BELLOSILLO Txirrindularia

“Altzo bitan igo,
Larraitz behin...
Gaurkoa gogorragoa
izango da”

Izerditzeko nahikoa eta gehitxo. Atzo baino gogo gehiago

jarriko al dute...!

ERGOBIKO KARRERA

Alejandro Barbado orereta-rrak irabazi zuen atzoko karrera. Hernaniarrak 5 ziren irteeran, baina helmugara bi heldu ziren: Aitor Bellosillok hamaikagarren egin eta talde berean sartu zen Alain Urkola. □

Portuko jai batzordeak atera du programa

Irailak 1etik 3ra Portukoek, eta gainontzekoek, izango dute zertan gozatua.



HERRIKO denda eta tabernetan eskura dago Portuko festa egitaraua. Irailak lean, ostiralara, txupinazoak ekarriko du aitzakia asteburu osoan festa jartzeko: haurrak bihurtuko dira gaztelu puztuetako errege, eta futbolineko pitxitxi. Gazteek nahiko lan gaueko kontzertuetan gorputzari eusten, goizeko batxurizopak hotzak kendu arte. Ez hain gazteek ‘Pedro Mari’ tabernako mus txapelketan erakutsiko dute gezurak zenbat balio duen.

OHITURARI EUTSIZ

Portuko festen ikur bihurtu dira zenbait ekintza. Aurten:
-49.asto-karrera
-26.toka eta bote txapelketa eta 11. sardina-jatea.

PORTU EKINTZEZ ITOTA

Argazki zaharren erakusketa, “Ttarla” dantza-taldea, sagardo probaketa, Iparraldeko herri-kirolak, eta beste hamaika arrazoi etxean ez sartzeko. □

Hauxe da aurtengo Portu auzoko jai egitarauaren azala.

HITZ BITAN



Hernaniko jokalariek futbol erakustaldi polita eman zuten atzokoan. Zorionak!

✓ FUTBOLA

Sebas Ontoria Torneoa Hernani txapeldun!!!

Atzo Martutenen jokatu zuen finala Eibar B taldearen aurka. Markagailuan 2-0, Hernani nagusi. Kontrarioa maila bat goragoko taldea zenik ez zen askorik antzeman: hernaniarrek asko estutu gabe irabazi zuten..

Hernaniren bi golak Ibon Intxaustik sartu zituen, eta Torneoko jokalaririk onena *Eusko* hernaniarra izendatu zuten. Ez zarete makalak!

✓ BIHAR ATXEGINDEGI ITXITA

Asfaltatu behar dutela eta, aparkatzerik ez. Bihar goizeko 8etarako aparkalekuak hutsik egon behar du, eta egun osoan kotxerik ezingo da bertan utzi. □

A
G
E
N
D
A

◆ ERGOBIKO FESTAK

⇒ 8:00 Txokolatada

⇒ 11:30 Sagardo lehiaketa

⇒ 17:00 Haur jolasak

⇒ 19:00 ‘Kiki’, ‘Koko’,

‘Moko’ eta ‘Plax’ paia-
soak

⇒ 18:00 Toka lehiaketa

⇒ 23:30-02:30 Dantzal-
dia, ‘Gaubela’ taldeak
jota

⇒ 12:30 Suzko zezena

☎ TELEFONOAK

- ▶ Taxiak: 943 550093
- ▶ Udaltzaingoa: 943333288
- ▶ DYA: 943464622
943 335533
- ▶ Anbulatorioa: 943 557750

✚ FARMAZIAK

- ▶ Egunez: Aizpuru
Latxunbe Berri, 11
☎ 943553582
- ▶ Gaez: Aizpuru
Latxunbe Berri, 11
☎ 943553582

HERNANIKO kronika

IRAGARKI MERKEAK

ZENBAT HITZ, HAINBAT PEZTA.

⇒ Gutxieneko 10 hitzeko iragarkia izan beharko du.

⇒ Hitz bakoitza 50 pza kostako da.

⇒ Iragarkian hitzak bakarrik agertuko dira, ez logorik eta ez inolako irudirik ere.

☎ 943 330899
kronika@topagunea.com